

HAGINAK

Kantauriar Mendilerroan



Kantauriar Mendikatearen hagin basoak zaintzen eta leheneratzen
Conservando y restaurando los bosques de tejo de la Cordillera Cantábrica
Conservando e restaurando os bosques de teixo da Cordilleira Cantábrica
Conservation and restoration of mediterranean *Taxus baccata* woods in the
Cantabrian Mountains

Kondairaz beteriko zuhaitza

Hagina (*Taxus baccata*) balio kultural, zientifiko eta natural handia duen zuhaitza da, eta ezaugarri bereziak ditu gainera gure landaredian. Oso bizitza luzea du (2000 urte izatera ere iristen da), eta geldi-geldi hazten da; egur elastiko eta gogorra du.

Europa osoan zehar da zuhaitz mitologikoa, kondairez beterikoa. Hagina gure adierazpen kultural eta erlijiosoetan dago aspalditik: zuhaitz sakratutzat hartu da, galtzen ez duen kolore berde horregatik eta bizi amaigabearen

sinboloa izateagatik. Antzina uste zen sorginak, mamurrak eta espiritu gaiztoak aldentzen zituela.

Herri indoeuropear eta, gerora kristauetan, tenplu eta aldareak ere eraiki ziren haginetatik gertu; sinbologia erlijiosoazko topaketak egiten ziren zuhaitz hauen itzalpean; edo eraikin erlijioso berrien aurrean (elizak, monasterioak,

hilerriak...) haginak landatzen ziren, babes izatearen uste horri eutsiz.

Etheen atarietan ere haginak landatzen ziren gaitzen aurrean ongi-egile uste zirelako; gaur egun ere hagin-adarrak ikus ditzakegu hainbat herrietako etheen ateetan. Antzinatik egunera hagin-egurra gure inguruan dugu, orain gutxi arte eguneroko tresnak eta lanabesak egiteko erabiltzen baitzen.



Egurrez egindako gairik zaharrenetako batzuk hagin-egurrarekin egin ziren. Horren adibide da, 1911an, Clacton-on-Sea herrian (Erresuma Batua)* aurkitu zen lantza-zatia. Objektuak 400.000 urte zituen.


Bestalde, ikerketa batzuen arabera, hagin-adarrak omen daude adar-formako adierazpenetan, hots, antzinako pintura eta zeramiketean, eta labar-grabatuetan.

Eta, non daude haginak?

Haginak Europa osoan zehar daude, Asiako zonalde batzuetan, Afrika iparraldean, baita Azore eta Madeirako Atlantikoko artxipelagoetan ere. Espainian, adibidez, mendilerro guztietan topa ditzakegu, bai zonalde Eurosiberiarrean, bai zonalde mediterranearrean, baita Balear Uharteetan ere, baina gehienak Penintsularen ipar

erdialdean daude. Dena dela, eremu geografiko handian banatuta badaude ere, landare-komunitate gisa hartzen duen egiazko azalera oso txikia da, eta gero eta txikiagoa gainera; zaila da halaber haginak

kontserbatzea, besteak beste, basoetako suteengatik, kimuak jaten dituzten belarjaleengatik edo beste zuhaitz-espezie batzuekin duten lehiaketagatik.



Nola bereiztu hagin bat beste espezieetatik?

Taxus baccata Iberiar Penintsulako landaredian Taxaceae familiako espezie bakarra da; horregatik, ezingo da gertuko espeziekin ere nahastu.

Zuhaitz ertaina da, ez ditu izaten 10 metro baino gehiago, nahiz eta ohiz kanpo 20 metrotara ere iris daitekeen, eta kolore arre grisaxkadun azalez estalitako enborrak lodiera nabarmena du. Hostoak helize-forman adaxketan sartuta ditu, nahiz eta bi alboetan daudela diruditen; hosto iraunkorrak dira eta 8 urte inguru irauten dute. Gorostien azikulen antzekoak dira, berde biziak: ilunak gainaldean eta margulagoak beste aldean.



Itxura nahaspilatua duela dirudi enborrean eta adarretan dituen kimu ugariengatik, lo dauden ernamuin ugari azaleratzen direlako. Hagina espezie dioikoa da, hau da, hagin ar eta emeak daude. Loreak negu amaieran edo udaberri hasieran ikus daitezke; fruituak, berriz, uda amaieran edo udazkenean agertzen dira.

Haziak kupula mamitsu gorri batez (ariloa) daude estalita partzialki, eta zuku lirdingatsu eta azukretsu gorriz beteta, oso apetatsua zenbait animaliaientzat; horri esker, errazago sakabanatzen da hazia.

Zuhaitz toxikoa da, "taxina" izeneko alkaloidea duelako zuhaitz osoan, haziaren estalki mamitsuan izan ezik. Hala ere, gaur egun medikuntzan erabili egiten da duen "taxol"-agatik, hainbat motatako minbizien tratamenduetarako.



Haginak bizi diren paisaiak

Haginek giro fresko eta hezeak dituzte gustuko, batik bat iparraldera edo ekialdera begira badaude, edozein orientaziotan aurkitzen badira ere. Hotzari bikain egiten diote aurre, baina sufritu egiten dute muturreko baldintza latzek luze dirautenean edo ohi baino beranduago datozen izotzaldietan, lehorte luzeetan bezalaxe.

Orotariko zoru-motetan bizi dira, bai kareharrizko zoruetan bai zoru azidoetan. Altitudeari dagokionez ere, tarte zabala da: itsasoaren mailatik 100 metro eta 1.600 metroraino aurki ditzakegu. Ur-baldintza batzuk betetzen badira (600 mm baino gehiagoko euriak), haginak klima desberdin ugaritan ager daitezke: klima mediterranearean, klima atlantikoan edo goi-mendikoan.

Haginak nagusi diren eremu gutxi daude, nahiz eta adibide oso interesgarri batzuk izan badauden. Oro har, unada txikietan egoten dira edo bakarka, basoetan beste espezie batzuekin elkarbizitzen. Kantauriar mendietan baso mistoa dagoen zonaldeetan dago, haritzekin, urkiekin, gorostiekin edo ezkiekin batera, edo pagadi edo pinudietan; arroila harritsueta ere aurkitzen da, ipurudi herrestarietan, pjoarnetan eta txilardietan.



Life Baccata proiektuko hagin-basoak

Iberiar Penintsulan dauden hagin-baso guztiek balio ekologiko eta zientifiko garrantzitsua dute. LIFE Baccata proiektua barne hartzen den lurralde-eremuan eta inguruan, aipatzekoak dira, adibidez, Devesa da Rogueira eta Devesa da Escrita (O Courel, Lugo) edo Teixadal de Casaio (Trevinca mendia, Ourense).

Leónen, berriz, Teixadal de Burbia (Ancares Leoneses Erreserba), Rioscuroko hagin-basoa (Laciana), edo "Hoyos de los tejares" izenekoa (Posada de Valdeón udalerrria) daude. Oso ezagunak dira, baita ere Palentzia iparraldeko hagin-basoak, adibidez, "Tosande hagin-basoa", Burgos iparraldekoak, besteak beste Tartalés de Cillako "La Tejera", eta Euskadin dauden Pagoeta eta Aralarrekoak (Gipuzkoa). Tamaina handia duten hagin berezi-bereziak daude horietako askotan.

Hagin monumentalak

Haginak gure ondarearen zati dira: ale apartak aurkitu ditzakegu eliza, hilerri edo etxe partikularren ondoan. Adibidez, Teixos de Cereixido eta Córneasekoak (Lugo), Ranabal de Abajoko hagina (León), Cantoral eta Santana de la Peñakoak (Palentzia), Quintanilla del Rebollarrekoa (Burgos), edo Mutrikuko hilerrian daudenak (Gipuzkoa).

Haginen lagunak

Haziak estaltzen dituen arilo mamitsu gorriek erakartzen dituzte haginak sakabanatzen dituzten animalia gehienak. Birigarroak eta zozoek kontsumitzen dituzte gehien, baina txantxangorriek, eskinosoek, arabazozoek eta beste hainbat hegaztik ere parte hartzen dute sakabantze-lan horretan.



Azeria, basurdea, lepazuria, erbinudea eta azkonarra bezalako ugaztunek ere haziak batera eta bestera eramaten dituzte gorozkietan; beste batzuk, erbiek, untziek, katagorriek, soro-muxarrek eta basasaguek kasu, beti ahazten dute haziren bat nonbait janaria biltzeko lanetan dabiltzanean, eta hala hagina sakabanatzen ere laguntzen dute. Erkidegoaren arabera landaredi-mota bat edo beste egongo da haginaren ondoan (baso mistoa, hariztia, pagadia, etab.), baina espezie ohikoenak dira gorostiak, hurritzak, ahuntz-sahatsak, txilarrak eta ahabiak.



Animalia bidezko barreiadura

Horrela esaten zaio animaliek landare-espezieen haziak sakabanatzeari. Barreiadura bi modutan egin daiteke: bata, animalien larru, ile edo apatxaren bidez egiten da (adibidez, ardi trashumanteek beren artilean sartuta "garraiatzen" dituzte haziak urrutira), eta bestea, animalia batzuen digestio-sistemaren bidez, fruitu eta haziak irensten dituztelako. Animaliak sabel-usten direnean, haziak ongarria izateaz gainera estalkia bigunduta dute animalia "garraiatzailearen" digestio-azidoetatik igaro direlako.

Animaliek haziak barreiatzeari esker, aldakortasun genetikoaren alde egiten da, animaliek landare amarengandik urrun uzten baitituzte haziak.

Zergatik kontserbatu haginak?

Ikusi dugun bezala, haginaren eremua oso zabala bada ere, ez da oso espezie oparoa. Autonomia-erkidego batzuetan Lehentasunezko Arretadun Espeziea da, edo Espezie Mehatzatuen Katalogoan biltzen da

Hauek dira haginaren presio eta mehatxu nagusiak:

Basoko eta etxeko belarjaleen presioa

Hausnartzaile belarjaleek hagin-landare txikiak jaten dituzte, baita gertu dituzten hagin helduen adar eta kimu samurrak ere. Presio hori altua bada, erdi jandako aleak guztiz hil daitezke eta espeziearen ugalketa arriskuan ipini.

Beste zuhaitz-espezie batzuekiko lehia

Argia borrokagai, azkarrago hazten diren beste espezie batzuekiko egon litekeen lehian haginak zentzu guztietan lekuz kanpo gera daitezke. Hori gertatzen da batik bat pagadietan: hagina pagoen drosel azpitik egon ohi da, argi oso gutxirekin, eta horregatik azpian gelditu eta batzuetan hil egiten da lehia gogorregia izaki.

Suteak basoetan

Basoetan izan diren suteek askotan haginak galarazi, hagin-kopurua murriztu eta isolatu egiten dituzte, Iberiar Penintsularen ipar-mendebaldean gertatu den bezala.

Hagin-basoen inguruaren erabilera publikoa gaizki kudeatzea eta beste asaldura batzuk

Hagin monumentalak dauden lekuetara jende gehiegi joanez gero, kalte garrantzitsuak eragin daitezke sustraietan eta lurgunea gehiegi trinkotu daiteke, besteak beste. Presio eta mehatxu hauek guztiek arriskuan jartzen dute hagin-basoen biziraupena eta zatikarazi egiten dituzte.



Zer egin dezakegu?

Espeziea kontserbatzeko hartzen diren neurri nagusiek kalteak aurreikusi behar dituzte, hots, haginak dauden basoak behar bezala kudeatu beharko dira, belarjaleak kontrolatu, hau da, belarjaleek hagin gazteak jan ditzaten ekidin behar da, eta haginaren habitata kontserbatu eta berreskuratu.

Horretarako, hainbat ekintza egin daitezke:

- Hagin-baso handien tratamendua egin behar da (bananketak, eraztunketak, etab.) pagadi trinkoetan, edo konifera-sailetan, hagina baino askoz ere azkarrago hazten diren espezie hauek haginarekin argiagatik duten

lehia murrizteko eta, hala, haginaren hazkuntza geldiaraztea ekiteko.

- Hagin-eremuak hesiz ixtea guztiz, partzialki edo indibidualki, belarjaleen presioak haginaren birsorkuntzan eraginik izan ez dezaten.
- Hagin-basoen habitata berreskuratzea eta zabaltzea eremu horiek basotuz. Ekintza horrekin, haginak hobeto birsor daitezten lortu nahi da, baita horien arteko konektibitatea areagotzea ere. Zonalde bakoitzeko hagin-eremuetan dauden berezko espezieekin egiten dira aipatu basotze-lanak; adibidez, haginez gainera, gurbeondoak, haritzak, astigarrak, hurritzak, ezkiak, gorostiak edo elorri zuriak ere landatu behar dira, besteak beste.



Guztion artean

Guztiok har dezakegu parte hagin-eremuen kontserbazioan:

- Ekidin jende asko biltzen dituzten bisitaldiak, zorua trinkotu eta sustraiak kaltetu egiten dira eta.
- Haginak ez dira inausi behar. Inaustekotan, ez kimatu asko: kimu ugari sortuko dira enborrean eta, horren ondorioz, zuhaitzaren bizitasuna murriztuko da.
- Ez igo haginaren gainera eta ez utzi marka edo seinalerik enborrean. Horrelako ugari eginez gero, hagina kaltetzen da edo enborrak eta/edo adarrak zauritu daitezke.
- Nekazariak aliatu bikainak izan daitezke ekintza hauetan: kontrolik gabeko suteak ekidin ditzakete, eta larreak kontserbatu eta mantendu ditzakete belar-sastrakak kenduz eta ganadua behar bezala gidatuz.
- Karga zinegetikoa behar bezala mantentzen bada (batik bat oreina), hagina gehiago birsortu eta hobeto kontserbatuko da.
- Gozatu monumentu bizidun hauez, mirestea eta errespetatzea merezi dute eta.

Natura 2000 Sarea indartzen duen proiektua


Biodibertsitatea kontserbatzeko eremuetarako Europako sare ekologikoa da Natura 2000. Europako espezie eta habitaten bizirau-pena epe luzera bermatzea du helburu.

Sare honetan Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) barne hartzen dira, baita Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE) ere. Europako habitat naturalak eta basoko landare- eta animalia-espezie berezi eta mehatxatuenak kontserbatzeko eta berreskuratzeko izendatu dira aipatu KBE

eta HBBEak; hala, gizakiaren jarduera jakin batzuek eragiten dituzten inpaktu negatiboek dakarten biodibertsitate-galeraren kontra egin ahal izango da. Proiektuaren muina hagin-basoak aztertzean datza, baita hagina dagoen beste zuhaitz-espezieen masak ikertzean ere, Natura 2000 Sareko 15 lekutan,

Kantauriar Mendilerroko inguru geografikoan hain zuzen ere.

Habitat (92/43/CEE) eta Hegaztien Zuzentza-
rauen (2009/147/CE) baitan dago Natura Sarea.



LIFE Baccata proiektua

Gure gizarteak ezin du gaur egun habitat eta animalia- eta landare-espezierik galdu. Konpromiso etiko kolektibo honek espezieak eta ekosistemak zaintzera derrigortu behar gaitu. LIFE Baccata proiektuak hagin- kontserbazioaren alde egiten diren ahaleginak areagotu nahi ditu haginak dauden lekuetan hainbat neurri ezarriz. Era berean, espezie honen berri eman nahi zaio gizarteari zer nolako berezitasunak dituzten azalduz, zein

arazo dituzten esanez eta dauden aleak mantendu eta gehiago izateko banaka edo kolektiboan zer egin dezakegun adieraziz. Haginak batik bat “Taxus baccata baso mediterranearrak” izeneko habitat motetan daude. Hagin-basoak egun mehatxupean daude eta erantzukizun handia da horiek kontserbatzea Europar Batasunarentzat, horregatik dago habitat hau “Lehentasunezko Kontserbazio” gisa definituta. LIFE BACCATA

proiektua Europako Batzordeak kofinantzatzen du LIFE Deialdiaren barnean, eta 2016 eta 2020 urteen artean gauzatzen ari da. Proiektu honekin Kantauriar Mendilerroko 15 KBEko (Kontserbazio Bereziko Eremuak) hagin- habitataren kontserbazio-maila hobetu nahi da. Horretarako, zaintzaren inguruko adierazleak izango dira oinarri: okupazio-eremua, egitura eta funtzioak eta geroko ikuspuntuak.



Hauek dira LIFE Baccata proiektuaren helburu nagusiak:

- Hagin-basoek hartzen duten eremua areagotzea.
 - Hagin-basoen habitatek duten egitura eta betetzen dituzten funtzioak hobetzea.
 - Habitatak gerora hobeto biziraun ahal izateko neurriak aplikatzea.
 - Proiektuan zehar hartutako neurriak Europa-mailan zabaltzea eta transferitzea, halakoak Europar Batasunean berriz egin ahal izateko.
 - Hagin-basoek zer nolako garrantzi ekologikoa duten gizarteari jakinaraztea.
 - Administrazioek, mendi-jabeek, abeltzainek eta baso-elkarteek haginaren kontserbazioan parte har dezaten bultzatzea.
- Hagina eta hagin-basoak babesteko ekintzak egitea etxeko edo basoko belarjaleen aurrean espezie hau kontserbatu eta birsortzen laguntzeko.
 - Suteen eta horiek haginengan eragiten dituzten ondorioen aurka prebentzio-jarduerak egitea.
 - Kantauriar eskualdean dauden *Taxus baccata* multzoen egitura genetikoa hobeto ezagutzea.
 - Gizarteari hagin eta hagin-basoei buruz sentsibilizatu eta horiek hobeto ezagutaraztea.
 - Garapen iraunkorrean parte hartzea proiektuko ekintzak egiten diren udalerrietan.

Proiektuan zehar egingo diren ekintzak:

- Habitataren berezko espezieak landatzea eta kontrolatzea eta berezkoak ez direnak kentzea habitata behar bezala garatu ahal izateko.





SOCIOS

LIFE15 NAT/ES/000790



ADMINISTRACIONES COLABORADORAS



COLABORADORES

